



Lezoko Unibertsitateko Udala

DIKTAMENA

PTP DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEA. Aurkeztutako Alegazioak onartzea.

2015H0460001

2015/11/19an Informazio Batzorde Orokorra egin zen.

Nahiz eta hasera batean, Batzordeak diktaminatzeke zituen gaien artean ondorengo hau ez egon:

Lezoko Gaintzurizketarako LZPak aurreikusita duenaren inguruan, joan den 2015eko azaroaren 18an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika saileko Lurralde Plangintza eta Hirigintza zuzendaritzari helarazitako Lezoko Udaleko EAJ-PNV alderdi politikoko 6 zinegotziek eta Lezoko Udaleko Bildu alderdi politikoko 6 zinegotziek adostu eta sinatutako alegazioak onartzea.

Informazio Batzorde Orokorreko kideek aho batez bozkatu eta erabaki dute aipatutakoa gai zerrendan sartzea eta diktaminatzea.

Hona hemen aipatu alegazioen testua:

“Donostialdeko Lurralde Zatikako Planak (LZPak) Lezoko udalerrirako aurreikusita duenaren aurrean, ondorengo adierazi nahi dugu Lezoko alkate eta oin-orriko zinegotziek:

Egun Lezoko herriaren ordenamendurako indarrean den Plan Orokorrak ezarrita ditu herriaren hiri antolakuntzarako datozen urteetan jarraitu behar diren irizpideak; ezarrita ditu garapen gune direnak eta ez direnak. Zehazten du garapen guneak nola garatu: non zer eraiki. Aintzat ditu industria jardueretarako azalera, egun okupatuak direnak eta etorkizun hurbilean okupatu beharko liratekeenak, egon litezkeen eskaera berriei aurre egin ahal izateko. Izendatuta ditu urbanizagarri ez diren espazioak, babestu beharrekotzat jotzen dituelako. Adierazten du egin ahal dena eta egin ezin dena: “marra gorriak” adierazita datoz. Eta, hain justu, esku artean dugun Donostialdeako Lurralde Zatikako Planak (LZPak) ukitu egiten ditu Lezoko Plan Orokorrak “gorri” dituen marrak.

Lezoko Gaintzurizketan intermodala nahi du LZPak eraiki; eta intermodala eraikitzearekin batera logistika joan-etorrietarako azalera handia okupatu. Kontua da LZPak bere egitasmoetarako aurreikusita duen azalera handiaren parte bat dela, hain justu, Lezoko Plan Orokorrak industria jardueretarako gordeta duena, eta beste partea (logistikarako hartu nahi duen gainerakoa) dela gure Plan Orokorrak eremu babestutzat jotzen duena. Talka egiten dute Plan biek Lezorako azalaren erabilera irizpideetan, eta, zentzu horretan, adierazi nahi da handia dela gure kezka.

Handia da halaber kezka, planoak aurrean ditugula, Gaintzurizketa aldea eta portua elkar lotzeko eraiki nahi den errepide sareak piztu duguna, erpin batetik besteraino zeharkatzen baitu marrazkian errepide sareak herria.



Lezoko Unibertsitateko Udala

LZPak Lezori eskatzen dio udalerrarena den azaleraren parte handi bat hari (Lurralde Zatikako Planari) ematea: handia da Planak Lezori eskatzen dion ahalegina, eta, aldiz, oso eskasa halako ahalegina egin behar izateko jaso dugun argudioen pisua. Esaten da portuko jarduera ekonomikoari laguntzeko sortu behar dela azalera logistikoa Gaintxurizketan. Iruditzen zaigu aipatu azalera portuan bertan egonda (eta ez beste inon) izango dela portuko jarduerarako egokien, behin portutik urrunduta desplazamenduek eta merkantzien karga-deskarga bikoizketek garestitu besterik ez baitute egiten jarduera, baina gure harridurarako azalera portutik urruntzea hobesten da eta Lezora ekartzea. Bada besterik dena den: ematen du, Bilboko portuak egin berri duenari errepatuz gero, behin portutik urruntzera erabakita koka litekeela aipatu azalera portutik nahi bezain urrun (ematen du portuarekiko distantzia ez dela hain irizpide erabakitzaila), bizkaitarrek haien portuko almatzen gunea ezarri baitute Bilboko kaitik kilometro jakinera Arabaren azken mugetan; hortaz, portuan bertan horretarako azalerarik ez gordetzea adostuz gero, ez du zertan azalera horrek Lezon egon (egon liteke beste edonon). Esaten da trenbide lerroak eraikiko direla Lezon "gune estrategikoa delako Lezo", Lezoren zerizana estrategikoa izatea izango balitz bezala. Erabaki politikoz (eta ez berez) da Lezo estrategikoa, eta hala, politikoki, adostu da aipatu trenbide lerroak Lezon eraikitzea (Lezon, eta ez trenbide lerroak jada dituen beste udalerriren batean). Ez gatoz bat egitasmo horiekin: goitik behera aldatuko zaigu herria, eta ez dugu halako aldaketa bidezkozten duen pisuko argudiorik ikusi landu ditugun dokumentuetan eta izan ditugun bileretan.

~~Gauzak horrela azalduta, eskatzen dugu bertan behera uztea Lezoko Gaintxurizketarako LZPak aurreikusita duena: ez intermodalik, ez azalera logistikorik, ez herrian zeharreko errepide berririk Lezoko herrirako. Adierazi nahi dugu handia dela gure kezka, eta, zentzu horretan, azpimarratzen dugu egingo dugula aurrerantzean zuen erabakien jarraipen zuzena.~~

Testu honi atxikita bidaltzen dizkizuegu LZPari gure guztion ALEGAZIOAK; eskertuko genuke horiei zuen erantzuna jasotzea."

Espedientea azterturik eta dagokion txosten teknikoa ikusirik EAJ-PNV eta EH Bilduren ordezkarien botoa alde eta PSE-PSOEn ordezkariaren abstentzioekin Informazio Batzorde Orokorrak behean heldu dena diktaminatu du osoko bilkurak onar dezan:

BAT: Lezoko Gaintxurizketarako LZPak aurreikusita duenaren inguruan, joan den 2015eko azaroaren 18an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta lurralde Politika saileko Lurralde Plangintza eta Hirigintza zuzendaritzari helarazitako, Lezoko Udaleko EAJ-PNV alderdi politikoko 6 zinegotziek eta Lezoko Udaleko Bildu alderdi politikoko 6 zinegotziek adostu eta sinatutako alegazioak onartzea.

Lezon, 2015-11-19

Ubillos

Xubero Ubillos Apaolaza, Informazio Batzorde Orokorreko Lehendakaria.

